



Prentsa agiria

Baxoa Euskaraz, aitzinatu ordeztu gibelera !

Ipar Euskal Herriko parlamentariak eta Euskararen Erakunde Publikoko ordezkariak esku hutsik atera dira Pariseko Hezkuntza Ministeritzatik.

Heldu den ekainean matematikako azterketa gehituko da Baxoan, eta 2021eko erreforma aitzin Matematikak euskaraz zirenez, Bordaleko Huart errektorearen adierazpen baikorrak entzunik, eta Euskal Herriko delegazioak Frantziar Gobernuari aho batez Baxoa Euskaraz izan dadin galdeginik, ministroak berak izenpetutako zirkularrak azterketak euskaraz egiteko aukera eskaintzen duenez, euskaraz egiteko parada izanen zela pentsatzekoa zen. Baina ez da hala izan : frantsesa, filosofia, berezitasunak, ahozko handia ...eta orain 1.eko matematikak ere...

Hitzez aitzinatuko ginela erran ziguten, ekintzetan gibelka ari dira

Murgiltzen ereduaren kontra ari dira. Euskararen kontra ari dira. Onartezina da.

Argi eta garbi adierazi nahi dugu, inposaketa berri honi EZ erranen diogula.

Borroka eta mobilizazio ziklo berri batean sartzen gara.

Urtarrilaren 24ean lehen mobilizazio bat egingen dugu.

Euskaltzale, famili eta hautetsiei galdegiten diegu data hau agendan atxik dezaten. Elementu gehiago izanen dira ondoko egunetan.

« Kasu ikastolak kexu! »

« Hitz hitz ! »

« Azterketak euskaraz ».